AHOZKO ULERMENA (1)

Erantzun entzundako testuari buruzko galdera hauek:

1 Txinatarrek, agurtzeko, gorputza apur bat makurtu, eta...

a) ... bi musu ematen dizkiote elkarri.

b) ... erreberentzia txiki bat egiten dute.

c) ... elkar besarkatzen dute.

2 Zer egiten dute txinatarrek opari bat jasotzean?

a) Bi eskuak luzatu.

b) Eskuineko eskua luzatu.

c) Begiak itxi eta eskuak luzatu.

3 Zer da heziketa txarrekoa txinatarrentzat?

a) Oparia gustukoa ez dela esatea.

b) Urtebetetze-egunean oparirik ez egitea.

c) Opariak inoren aurrean irekitzea.

4 Aukeratu txinatarren jateko ohiturei buruz gezurra dioten esaldiak.

a) Txinatarrek egurrezko zotzekin jaten dute.

b) Zopak jateko, zeramikazko koilarak soilik erabiltzen dituzte.

c) Jateko, platerera hurbildu behar da.

d) Jan ondoren, zotzak mahai-oihalaren gainean utzi behar dira.

e) Plater gainean ere utz daitezke zotzak.

5 Zer esaten da teari buruz testuan? Aukeratu.

a) Te beltza bakarrik edaten dutela Txinan.

b) Txinako edari nazionala dela.

c) Japoniatik Txinara eraman zutela.

d) Txinatik mundu osora hedatu zela.

6 Zein da testuaren irakaspena?

a) Txinatarren eta euskaldunon ohiturak oso desberdinak dira.

b) Euskaldunon ohiturak txinatarrenak baino hobeak dira.

c) Kultura guztietako ohiturak errespetatu behar dira.

LIVEWORKSHEETS